




EAEko industria ekoizpena %0,1 murriztu zen

Industria produkzioaren indizea (IPI)
Urte bakoitzeko azaroa




Iturria: Eustat.

Eustatek argitaratutako informazioaren arabera, **EAEko industria produkzioa %0,1 jaitsi zen azaroan urte arteko tasan**. Bilakaera hori, batez ere, energian izandako jaitsierak eragin zuen (-%7,2), eta horri gehitu behar zaizkio kontsumo ondasunek (-%2,5) eta bitarteko ondasunek (-%0,8) izandako jaitsierak. Aitzitik, ekipo ondasunen produkzioa %4,0 hazi zen.

Europako langabezia tasak behera egin du berriro

Euroguneko langabezia tasa
Ehunekoak



Iturria: Eurostat.


Azaroan, euroaren eremuko langabezia tasa %6,4an kokatu zen. Zehazki, hamarren bat murriztu zen aurreko hilabetearen aldean, azken hilabeteetako beheranzko joera berretsiz. Jaitsiera horri esker, serie historiko osoko tasarik baxuena lortu zen, joan den ekainean erregistratutakoa berdinduz.



EAEko ekonomiaren termometroa 83,1ean dago

EAEko ekonomiaren termometroa

Indizea




Abenduan, EAEko ekonomiaren termometroa 83,1 puntutan kokatu zen, beheranzko joerarekin jarraituz, baina hazkunde leuneko eremuan mantendu zen. Zehazki, 2,9 puntu galdu ditu aurreko hilaren aldean, batez ere industriaren bilakaeragatik, uzkurdura egoeran jarraitzen baitu. Aitzitik, enpleguak dinamismo nabarmena erakusten du.

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Euskadiko KPlak %3,1ean itxi zuen urtea

Euskadiko KPI indizea

Urte arteko aldakuntza tasa



Abenduan, KPlaren urte arteko tasa %3,1ekoa izan zen, aurreko hilean baino hiru hamarren txikiagoa. Bilakaera hori, batez ere, elikagaien garestitze txikiagoak eragin zuen. Bestalde, azpiko inflazioak moteltzen jarraitu zuen, %4,8tik %3,9ra.

Iturria: INE.